

Monsieur le Chanoine P. Lafitte
Petit Séminaire d'
U s t a r r i t z

Jaun agurgarri hori,

Nere Doktoradoko tesisatik argitaratu didaten

Karmele ROTAETXE - Estudio estructural del esukera de Ondarroa
L. Zugaza, ed. Col TI - Dyrango, 1978 - 715 pp.

liburuaren ale bat atseginez bikali dizut. Liburu honeri buruz, "compte-rendu" edo "erreseina" bat eskatzera natorkizu.

Delako tesisa, Voldo Mitxelenaren gidaritzapean egin nuen, ^{eta} Salamankan ihez sostengitu, notarik handiena ("sobresaliente cum laude") lorturik. Hain zuzen, Mitxelenaren aholkuari jarraituz, Iruinako FONTES LINGVAE VASCONUM egunkarian agertzeko "erreseina" horren eske idazten dizut.

Nahiz eta Deustuko Unibertsitatean behin baino sarriago ikusi, ez zarala nitaz gogoratuko, behar bada. Askenez, Bilbo Biblioteka Municipalean izan zen Euskaltzaindiaren Biltzar zabal baten elkar ikusi ginien eta, bigpahiru urte duela, zurengana joan nintzen (Ustarritzera), nere aitabitxia den Manu Sotaren partez, bibliografia baten bila; hain zuzen, aspalditik, Deustu-Letrasetako Fakultatean zenbait tesinaren (mémoires) zuzenketaz arduratzen bainaz. Zenbait bider eta zenbait ikasleri utzi egin diet aspalditik dadukan zure "Grammaire basque" bikain hori?

Ikerlan honetan, Ondarroako hizketaz baliatuz, euskararen egitura (batzuetan "azalezkoa" gaindituz, "sakona" ere bai) aztertze -ta, noski, azaltzeko ahalegindu naiz, aipatzen ditudan Linguistikazko oinharriak harturik. Ohartuko duzunez, zenbait puntutan, nere ondorioak ez dira, izan, normalki onhartzten diren ondorioak (ikus, adibidez, "aglutinación de elementos en el sintagma nominal pluralizado, B-a-g ... gixon-a-g(e)-ren, kasuz) . Aurkeztuten ditudan ondorio horretara derrigor heldu behar-izan dut: datuek eta onhartu dudan ezterbideak imosatu baitzikidate. Patez ere, azterketa koherente bateri eutsi diot, lan linguistiko bat (= zientifiko bat) lortzeko guraz.

Berriak diren planteamenduak eta ondorioak nik baino hobeto ikusiko dituzu (azentzia, entonazioa, nola ikusten dudun "deklinazioa", inesibozko -e-famatu horrerri ematen diodan soluzioa, ergatiboari buruzko azterketa, ta punto honetan erabili dudun bibliografia azkenengo ordukoa da). Azentuari buruz, Parisetik eskatu zidaten laburpen bat eta nere artikulo bat La Linguistique (14, 1978-1, ekainean) agertuko da "L'Accent basque - Observations et Hypothèses" . Ergatiboari dagokiona, berriz, Sociedad Española de Lingüística interesatu zen eta , laster, "Linguística-Lógica: la construcción ergativa vasca" artikulo bat argitaratzeko didate euren egunkarian.

Antxinatik, euskara lantzean ibili zaretenok zuen eritziak eman behar dituzela, esan gabe doa. Horregaitik zure "compte-rendu" hori hain baliotsua izango zait eta izango da irakurleentzat ere bai.

Fontes Linguae Vasconum-ekoei idatziko diet , erresinaz zeu arduratuko zarala ta zeu bihaliko diezau- diezula zuzen, esanez. Baina, onhartzen ezpa duzu, adierazi ezazu, arren, lehen bai lehen , beste norbait aurki dezatela. Zure betiko jakingura ezahutuz gero, eztoz uste ezatz esango duzunik. Bihotz-bihotzez eskerrik asko eta, zure erantzunaren zai, agurtzen zaitut, begirunez,

Karmele Rotaetxe

Karmele Rotaetxe
Pl. Echaniz, 4 - 6^o
BILBAO, 10

P.S.: Berri on bat: Le Sorbonnetik del-ggin didate hor Euskal linguistikaz ikastaro bat emateko. Maiatzan noa. Danka, maita karrik. Tazoz berriz uko ta, behi, nesaka nebil




PARIS ET SES MERVEILLES.

5457 - La Sorbonne.

A feu Janna,
Esker auzitz zure
juntur befiloa partile.

haiatzan eman nuen ikastetza
nrai buruz gurbait nute (apuntak
ntriziteko, beriz etoni naitz Parisen
oran senararekin. Datalako
nlastara eginda few -nahiz eta
nlasta leku maite, de conferencias hob...
ere etoni izan - oso pozile gerta
nintzan eta, itenez, emak ere
nirekin. Bolutez.

Lan de la T. et Production LECONTE



Karmela Rosta



DES MORTS ONT
BESOIN DE SANG
QU'ATTENDEZ-VOUS?

housien de chanoine

P. LAFITTE

fête seminaire de

64, USTARITZ